

ETXALAR^{ko}
BESTAK
2026^{ko}
Abuztuaren
14tik 18ra



Etxalarako
Udala



*Etxalarko Udalak
herritar eta bisitari guztiei
besta onak opa dizkizue*



www.etxalar.eus



BESTABUSA ARANTZA ETA ETXALAR

ABUZTUAK 14, OSTIRALA

5 €
joan-etorria

20:45 23:15	21:00 23:30	21:15 23:45	21:30 00:00	21:45 00:15
BERA (Toki Ona Agerra)	LESAKA (suhiltzaile parkean)	ETXALAR (Landaburuan)	IGANTZI (Bi-Bidean)	ARANTZA (aparkalekuan)
4:00 5:45 7:30	3:45 5:30 7:15	3:30 5:15 7:00	3:15 5:00 6:45	3:00 4:45 6:30

ERNE

- Adin taldekoek zerbitzuak erabiltze gero gertatzen diren laguntza onuradun guztiei lehenengo dira.
- Autobus barruan, ez inon, ez da errespetu faltarik onartuko.

AVISOS

- En el caso de que los usuarios utilicen el servicio, la responsabilidad sobre cualquier hecho será de los protagonistas.
- Actúa siempre con respeto.



ALKATEAREN AGURRA

Urtero bezala, uda ailegatzearekin batera, Etxalar berriz ere bere momenturik berezienetako bat bizitzeko prestatzen da. Bestak ate joka ditugu, eta urte osoan egindako lanari geldialdi tiki bat egiteko eta elkarrekin gozatzeko garaia ailegatu da.

Urtea ez da ekitaldiz bakarrik osatzen. Egia da herriko agenda berriz ere bizia izan dela, eta herritarren parte hartzeari esker hamaika ekimen aitzinera atera direla. Baina ikusgarri egiten den guztiaren giblean bada aunitzetan ikusten ez den lana ere: bilerak, prestaketak, erabakiak, mantentze lanak, garbiketak eta eguneroko ahalegina. Horregatik, lehenik eta behin, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu herriko elkarte, boluntario, talde, langile eta modu batera edo bertze Etxalar bizirik mantentzen laguntzen duten herritar guztiei. Herri hau guztion artean egiten

dugulako. Aurten bizi izan ditugun egoerek agerian utzi dute egokitzeko gaitasuna eta elkarlana direla gure tresnarik baliotsuenak. Bidean erronka berriak sortu direnean, talde gisa erantzuten jakin dugu, elkarri sostengua emanez eta udalaren eguneroko lana gelditu gabe. Esperientzia horrek sendotu egin gaitu, eta konbentziturik gaude elkarlanean aritzea dela herriaren mesederako erabakirik onenak hartzeko modurik egokiena.

Aurten, jakinen duzuen bezala, Udalak Etxalarko Usazaleekin hitzarmen bat sinatu du Hegazti Migratzaileen zentroaren kudeaketaren inguruan. Herriarentzat gure ondare naturala, historia eta kulturari balioa ematen laguntzen du. Hauen lanari esker, Etxalarko nortasuna eta jakintza belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira, ingurumenaren zaintza, turismo jasangarria eta herriaren garapena sustatuz. Herrigintzaren eta elkarlanaren adibide dira. Gure omenaldi eta eskerrak emateko modua izanen

da aurtengo bestatako altxaferoa botatzeko aukera, Usazaleei emanez.

Orain, ordea, ospatzeko tenorea da. Prestatu dugun bestetako programan adin guztientzako ekitaldiak aurkituko dituzue, eta denok gonbidatu nahi zaituztegu parte hartzera, karrikak giroz betetzera eta egun hauek lagun, familia eta auzokideekin partekatzen. Goza ditzagun bestak, baina beti gure herriaren balioak bidelagun ditugula: errespetua, berdintasuna, tolerantzia eta euskara. Horiek baitira elkarbizitza sendotzen duten oinarriak eta etorkizunera begira ere zaindu nahi ditugunak. Bihotzez, bestarik onenak opa dizkizuegu guztioi.

Gora Etxalar eta gora Etxalarko bestak!

**Leire Olagarai
Jarduneko Alkatea**

Aldizkaria honetan agertzen diren argazkien egileak:
Joseba Olagarai, Unax Etxarte eta Mireia Malaxetxebarria
Argitaratzailea: Etxalarko Udala . Lege Gorgailua: NA 1248-2015



HERRIKO OSTATUA

Errazioak - Hanburgesak - Bokadiloak - Plater konbinatuak - Entsaladak - Menu berexia

Andutzeta 15, ETXALAR
646 95 12 20
@herrikoostatua.etxalar



40 logela aire girotuarekin

Ostatu-jatetxea: Parrilla, plater konbinatuak eta errazioak

200 ibilgailuentzako parking pribatua

AZKUA erabilera anitzetarako gela: kontzertuak emateko, konferentziak emateko... mota guztietako ekitaldiak





N-121-A / ETXALAR / T.948 635 000
www.etxalar.com / info@etxalar.com

AURREKONTUA

ABUZTUAK 14		Ortzirala	
Lasterketa herrikoia	17:00	150,00 €	
Agerraldi ixila	19:45		
Altxaferuak	20:00	200,00 €	
Txanpaina, goxokiak eta globoak	20:00	300,00 €	
Kankailuak	20:00	800,00 €	
Elutxa txaranga	20:00 - 00:00	2.600,00 €	
Txistulariak/trikitilariak	20:00		Herriko txistulari eta trikitilarien eskutik
Herri Afaria	21:30		Etxalarko Gazteen eskutik
Txarangakoen afariak Herri afarian	21:30	250,00 €	
Biziraun Erromeria	00:30 - 04:00	2364,85 €	
ABUZTUAK 15		Larunbata	
Gaiteroak	10:30	500,00 €	
Dantza emanaldia	12:30		Andra Mari Dantza Taldearen eskutik
Musika Dantzariendako	12:30		
Dantzarien Luntx-a	13:30	250,00 €	
Herri Kirolak	18:00	1.771,00 €	
Dantzari eta txistularien afaria	21:00	1.500,00 €	
Su artifizialak	23:00	700,00 €	
Fan&Go Taldea	20:00 - 21:30 00:00 - 02:30	2.465,98€	
ABUZTUAK 16		Igandea	
Dianak	10:00		Herriko trikitilarien eskutik
Haurrendako jokuak	11:00 - 13:00 15:00 - 17:00	2.750,00 €	
Asau Tiki	13:30		Guraso Elkartearen eskutik
Eskalada	16:30 - 18:30		Miren, Paxku eta laguntzaileen eskutik
Herri Kirol Desafioa	18:00 - 19:00	1.000,00 €	Etxalarko Gazteen eskutik
Destino Sonora Mariatxiak	20:00 - 21:30	2.600,00 €	
DJ Txingudi	00:00 - 03:30	1.060,00 €	
ABUZTUAK 17		Astelehena	
Diana	10:30		Herriko txistularien eskutik
Haurren XXXIX. pilota txapelketa	11:00		
Gazteen XV. binakako esku pilota txapelketa	12:00		
Pilotari finalisten bazkaria		150,00 €	
Pilotako sari banaketak	13:00		Babesleen eskutik
XXXI. Mus txapelketa	17:00		
Trikitilarien emanaldia	18:30		Herriko trikitilarien eskutik
Trikitilarien berendua		200,00 €	
Saltoka	19:30 - 21:00	1.200,00 €	
Herriko musikariak	00:00 - 03:00	1.700,00 €	
ABUZTUAK 18		Asteartea	
Diana Elutxa Txarangarekin	10:30		
Boteluze	11:30		
Berto bazkaria	14:00	1.000,00 €	Larraburua Elkartea eta Udolaren eskutik
Asaua	14:00		Etxalarko Gazteen eskutik
Txarangakoen bazkariak Asauan		300,00 €	
Jokai	15:30 - 18:30	1.375,00 €	
Trikidantz Taldea	20:00 - 22:00	3.000,00 €	
DJ Endara	23:30 - 03:30	544,50€	
BERTZEAK		3.000,00 €	
SGAE		2.100,00 €	
Prezioak BEZa barne		35.786,83 €	

IÑIGO ETXARTE ARBURUA

- Iturgintza lanak
- Pellet eta egurrarekin berokuntza instalazioak
- Gas instalazioak



Goikolanda 8A
ETXALAR
T. 657 791 507
948 635 256

Ongi pasa bestak!

www.pelletsbازtanbidaso.com | etxarte1971@gmail.com

52 URTE **USOA** kooperatiba

Ongi pasa bestak!




948 63 52 14 605 63 12 44

MA
MA
ILEAPAINDEGIA

JAUREGIETA 13, ETXALAR • Tfnoa: 948 635 237 • www.facebook.com/Maiderileapaindegia

Abuztuak 14 ortzirala

- 17:00** X. Lasterketa herrikoia. Haur eta helduentzat lasterketa ez lehiakorra. 12 urtetik beherako haurren izen ematea.
- 17:30** Haurren lasterketa. Helduen izen ematea.
- 18:00** Helduen lasterketa. Ondotik berendua.
*Oharra Gertatzen ahal den edozein ezbehar ez da antolatzaileen ardurapean geldituko.
- 19:45** Agerraldi isila "Euskal Presoak Euskal Herrirat".
- 20:00** Altxaferua, txistulariak, trikitilariak, ELUTXA txaranga, buruhandiak eta kankailuak. Xanpaina eta goxokiak banatuko dira.
- 21:30** Herri afaria frontoian. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 9an bukatuko da. Txartelak 30€ balioko du. Epez kanpo erosten duenak 5€ gehiago ordaindu beharko ditu. Herri afarian eta ondotik ere txarangak animatuko du giroa.
- 00:30-04:00** Dantzaldia BIZIRAUN ERROMERIA taldearekin.





construcciones
LASAGA-TELLETXEA, S.L.

Ongi pasa bestak!

● HARGIN LANAK
● HARRI LANAK

T. 948 63 51 28 | M. 670 410 581 - Errotagaraia · ETXALAR · conslasaga@gmail.com



T. 637 20 64 62

Abuztuak 15

larunbata

Andre Mari eguna

- 10:30 Argi-soinuak gaiteroekin, buruhandi eta kankailuekin.
- 12:00 Meza nagusia txistulariekin .
- 12:30 Herriko dantzarien saioa txistulari eta musikariekin. Ondotik eskolako zaharreko estalpean hamaiketakoa dantzari eta musikarientzat.
- 18:00 Herri Kirolak. Aizkora, harri altxatzea eta motozerrarekin erakustaldia.
- 20:00-21:30 FAN&GO taldearen emanaldia.
- 00:00-02:30
- 23:00 Su artifizialak.





**BAR~ASADOR
BASQUE**
OSTATU-ERRETEGIA



Karta
Menu berezia
Dastaketa menua
Plater konbinatuak eta bokatak
(Ortziral eta larunbat gauetan
jatetxean eta eramateko egunero)
948 635 153 / 747 440 617
Instagram: @labasqueetxalar



**HERRIKO
OKINDEGIA**

**Euskal Herriko gari
mota zaharrak gure
errotan ehotuak**

- ✦ Espelta Handia
- ✦ Espelta Titikia
- ✦ Florencio Aurora
- ✦ ARAGON 08
- ✦ Lakaingo bizarduna

**06:00 - 13:00
EGUNERO IREKIA
Tlf. 627 03 39 75**



Abuztuak 16

igandea

Haur eta Gazteen eguna

- 10:00** Argi-soinuak herriko trikitilarien eskutik, buruhandi eta kankailuekin.
- 11:00-13:00** Haurrendako Joko Parkea. Txu-txu tren.
- 15:00-17:00**
- 13:30** Asauttiki. Txartelak 12€ balioko du. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 9an bukatuko da. Epez kanpo erosten duenak 3€ gehiago ordaindu beharko ditu. Bertze urteetan bezala, berendua prezioan sartu dago. Landagain Guraso Elkartek antolatua.
- *Oharra: Bazkaltzerakoan edo ondotik gertatzen ahal den edozein ezbehar ez da Guraso elkartearen ardurapean geldituko.
- 16:30-18:30** Eskalada Frontoi giblean haur eta helduentzat.
- 18:00** Herriko Gazteen arteko Herri Kirol desafioa.
- 20:00-21:30** DESTINO SONORA MARIATXIAK
- 00:00-03:30** DJ TXINGUDI





Maira

Oigintza ekologikoa







Ongi pasa bestak!

Gure harrizko errotan xehetutako Nafarroa eta Arabako zereal ekologikoekin egurrezko labean egindako ogiak, opiltxoak eta pastak.

Garia, espelta, zekale, hazidunak, gari beltz ogiak...

Bertan enkargu bidez: **620 053 512**

Asteartetan **KIMETZ**-en
Ortziraletan **SUSTRAI**
eta **BIDAZI**-n



IRIBARREN

Fabrikazioa, salmenta, instalazioa

**Energia aurrezteko leihorik egokiena!
Passivhaus-etxeentzako leihoak!**

Besta zoriontsuak opa dizkizuegu !!

www.ventanasiribarren.com

Antsolokueta, 28 ETXALAR | T./F. 948 635 071 | info@ventanasiribarren.com

Abuztuak 17

astelehena

- 10:30** Argi-soinuak herriko txistularien eskutik, buruhandi eta kankailuekin.
- 11:00** Herriko umeen XXXIX. pilota txapelketa Finalak. Aurre-Benjaminak/ Benjaminak, Benjaminak/Alebinak, Infantilak.
- 12:00** Aitor Danboriena Memoriala XV. pilota txapelketako finala.
- 13:00** Pilotako sari banaketa.
- 17:00** XXXII. Mus txapelketa. Bi kategoria izanen dira; haundiena eta 16 urtetik beheitikoena. Apuntatzeko 16:30etik aitzinera.
- 18:30** Herriko trikitilarien saioa. Ondotik trikitilarientzat berendua eskola zaharretan.
- 19:30-21:00** SALTOKA Euskal Musika eta dantza tradizionala. Ondotik Larrain dantza
- 20:00** Museko sari banaketa.
- 00:00-03:00** HERRIKO MUSIKARIAK






Abuztuak 18

asteartea

Asau eta Jubilatuen eguna

- 10:30 Argi-soinuak Diana ELUTXA txarangaren eskutik, buruhandi eta kankailuekin.
- 11:30 Bote luze.
- 14:00 Bertso bazkaria Larraburuan. Denentzat irekia. Sebastian Lizaso eta Amaia Agirre bertsolariak eta Joseba Olagarai gai jartzailea. Txartelak hartzeko, Larraburua elkarteko juntakideen bidez. Bazkideak 32€ eta bazkide ez direnak 37€.
- 14:00 Asaua ermitako zelaian. Plaza ingurutik ELUTXA txarangarekin batera denak elkarrekin abiatuko dira ermitako zelaira. Txartelak 35€. Buelta landatan barna izanen da.
- 16:30-18:30 JOKAI Jolasak ume zein helduentzat.
- 20:00-22:00 TRIKIDANTZ taldea.
- 23:30-03:30 DJ ENDARA





**Bortzirietako Hondakinen Zerbitzuak
besta jasangarriak opa dizkizue!**

*¡El Servicio de Residuos de Bortziria os desea
unas fiestas sostenibles!*

Nik ere bestetan birziklatzen dut!

¡Yo también reciclo en fiestas!



Oroitu! Hondakin guttiago sortzeko, Mankomunitateak hainbat material ditu.

*¡Recuerda! Para generar menos residuos, la Mancomunidad
dispone de distintos materiales.*



GOTTI BURUA

1997-2012 urteen artean sortutakoek Z GENERAZIOA deitzen dena osatzen dute eta gailu teknologikoen erabilera hagitz barneratua dute beraien egunerokotasunean: ikasteko, informazioa bilatzeko... bai eta ere harremanetarako eta aisialdirako.

- Bertzeen etengabeko onarpena bilatzera bultzatzen gaitu.
- FOMO (Fear of missing out) nahastea sor dezake: gailurik gabe egoteak zerbait galtzen ari garearen ezinegona sor dezake.
- Norberaren bizitza pribatua gehiegi erakusteko arriskua dago.



Gailu hauen gehiegizko erabilerak gure baloreetan, lehenetasun eta erabakietan eragin handia dute:

- Itxurari gehiegizko garrantzia ematera eramaten gaitu.
- Berehalakotasunera eta erosotasunera ohituarazten gaituzte eta frustrazioari aurre egiteko gaitasuna gutxitu egiten zaigu.

Guzti honengatik, GOTTI BURUA BORTZIRIAK guraso mugimendutik pantailak alde batera utziz gure herriko bestak zuzenean, momentuan eta pertsonalki bizitzera animatzen zaituztegu Z generazioko gazteei eta gainontzeko herritar guztiei!

**ONGI PASATU
ETXALARKO BESTAK!**



Etxalarko jubiteloka, 2022. urteko martxoaren hondarretik martxan dagoen adineko pertsonentzako aisialdi zerbitzua da.

Jubiteloka, adineko pertsonak euren ingurunean aktibo eta osasuntsu mantentzeko espazioa da, eta bertan, harremanak sustatzeaz gain, ekintza anitzak burutzen dira, hala nola: ariketa fisikoa, erreflexuak, erritmoa eta koordinazioa, motrizitate, memoria-eraketak, kalkulua, arreta eta pertzepzioa, musikoterapia, sukaldaritza tailerrak, gai zehatzei buruzko hausnarketak, profesionalek eskaintutako hitzaldiak, eskulanak eta denbora-pasak.

Astean behin biltzen gara, asteartetan, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

Gainera, gizarte zerbitzuen eskutik, garraio-zerbitzua dago erabilgarri. Furgonetaren zeregina, jubitelokako partaideak etxetik jubitelokara, eta jubitelokatik etxera eramatea da.

Norbaitek jubitelokari buruzko informazio gehiago beharko balu, Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatera (948 635 036) deitu edo jubiteloka@bortziriakg.z.eus-era idatz dezake.

**Jubitelokako partaideon partetik,
Besta Zoriontsuak pasat!**



Ongi pasa bestak!

T. 688 730 438
www.altxata.org - altxata@gmail.com
Anduetzeta, 12 • 31760 ETXALAR





ELKETRITZITATE LANAK
Erreformak, etxe berriak
Lantegietarako mantentze-lanak



**EGUZKI
PANELEN
INSTALAZIOAK**

☎ 948 631 217 | 630 136 863
📍 Julio Caro Baroja 6, 31780 Bera
✉ jaurenabera@gmail.com



Ongi pasatu bestak!

ERAIKUNTZA MATERIALAK - GARRAIO ZERBITZUAK
MAKINEN ALOKAIRUAK - ZERAMIKA
KOMUNAK - MARGOAK - LOREZAINZA
MAKINAK - LANERAKO ARROPA

Doneztebe
T: 948 450 305
menditxuri@bigmat.es

Herriko bestek, ospakizun eta lagun arteko giroak zipriztindurik, desinhibitzeok aukera paregabeak eskaintzen dituzte.

Egunerokoaz atzendu, ongi pasa eta sentsazio berriak bilatzeko, gutako batzuk drogak hartzea erabakitzen dute.

Oraingoan, esku artean duzuen idatzi honek BAPERRA hartuko du hausnarketa gai. Besta egunen aitzinetik, besta nolakoa eta norekin egin nahi dugun pentsatu eta antolatzeok garaia izaten denez, drogen kontsumoa egitea erabakiz gero, aurrez sustantziaren inguruko informazioa izateak babes neurriak areagotzea eragingo du. Hortaz informazio osotua: vapearnoesloqueparece.navarra.es edo bapeatzeaezdadirudiena.nafarroa.eus web gunean dago. Baperra edo zigarro elektronikoak likido bat berotzen duten gailuak dira eta, berotze horretan, arnasten den aerosol bat sortzen da. Ez da "ur-lurruna" soilik. Gailu horiek erabiltzeari bapeatzea erraten zaio.

Forma eta tamaina aunitz izaten ahal dituzte: batzuek zigarro tradizionalak ematen dute, eta bertz batzuek berriz boligrafoak, USB memoriak edo egunero erabiltzen diren objektuak. Badira behin erabiltzeko edo erabili eta botatzeko bapeagailuak (arkatz formakoak); pod motako bapeagailuak (tamaina ertainekoak, kargatzeko kartutxoak izaten dituzte); eta mod motako bapeagailuak (haundiagoak eta potentzia haundiagokoak, ur-biltegi bat izaten dute).

Nahiz eta zigarro elektronikoek zenbait forma izan, denek berdintsu funtzionatzen dute. Gailu horiek berotu egiten dute "e-liquid" edo "bapeatzeko likidoo" izeneko likidoo. Horrek izaten ditu nikotina, zapore-emaileak eta bertz substantzia kimiko batzuk.

Gailua pizten denean, bateria batek elikatzen du erresistentzia bat, eta horrek likidoo berotzen du aerosol bihurtu arte (batzuetan "lurrun" deitzen zaio). Horixe arnasten da ahokoaren bidez.

Aerosol hori ez da kea edo ur-lurruna, baizik eta partikula txikien nahasketa bat; partikula horiek biriketara iristen dira eta substantzia kaltegarriak izaten ahal dituzte. Zaila da jendearentzat zigarro elektronikoetako produktuek zer duten jakitea.

Erretzaileek arnasten duten zigarro elektronikoaren aerosol horrek substantzia kaltegarriak izaten ahal ditu, eta inguruan daudenei ere eragiten diete. Horien artean daude:

- Nikotina.
- Partikula ultrafinak: arnastu eta biriken hondora iristen ahal dira.
- Zapore-emaileak: arnastuz gero, biriketarako toxikoak izaten ahal dira.
- Minbizia eragiten duten substantzia kimikoak.
- Metal astunak, hala nola nikela, eztainua eta beruna.

Kontsumitzaile asko adingabeak dira. Hortaz, familia testuinguruan gaiaz solastu eta heztea ezinbertzekoa izango da.

Azken datuen arabera, Nafarroan 14tik 18 urtera bitarteko gazteen 48,5ak noizbait probatu du zigarro elektroniko bat. Gurasoendako eta zaintzaileendako gomendioak: Izan zaitez adibide positibo bat. Lortu kerik eta aerosolik gabeko etxea izatea. Mintzatu argi arriskuei buruz. Ari elkarlanean hezkuntza-komunitatearekin. Lagundu epaitu gabe. Sustatu laguntza-sareak. Kontsultatu iturri fidagarriak.

Guzti honen jakitun izanda eta zuri dagokizun heinean, herriko bestak errespetuan eta osasunean gozatu itzazu!



AZKUA BIZIRIK!

Energia herritik, natura bizirik.

Azkuako mendilerroa eta Zentibel-Orabidea ingurua ez dira hutsik dauden mendiak.

Ura eta errekek, basoak, landaredia eta fauna, zohikaztegiak eta hegaztien pasabideak, naturaguneen arteko lotura ekologikoak dira. Baita historiaurreko megalitoak, balizaitutako oinezko ibilbideak, BTT ibilbideak, Etxalarko Usategien mendeetako tradizio bizia eta herriaren memoria ere.

Duela bi urte, 2024an, kanpoko enpresa batek 200 metro inguruko aerocargailuak eta haiek eraikitzeko pista, plataforma eta lur-mugimendu handiak proiektatu zituen gure mendietan. Proiektua geldirik dago, baina ez dago behin betiko baztertua.

Klima-aldaketari aurre egin behar diogu, bai. Baina energia berriztagarriak ez dira edozein lekutan, edozein eskalatan eta herriarren parte-hartzerik gabe egin behar.

Mendiak bizirik. Energia herritik, herriarentzat. Azkua bizirik.

Baditugu bestelako bideak, herritik eta herriarentzat eraiki daitezkeenak:

- Teilatu eta eraikin publikoetan energia sortzea
- Tokiko energia-komunitateak antolatzea
- Bertako baso-kudeaketa jasangarritik datozen biomasa-sistemak erabiltzea
- Dauden ubide eta azpiegitura hidroelektrikoak berreskuratzea, herriak bertako argindarra sortzeko
- Kontsumoa murriztea eta efizientzia hobetzea
- Berrerabili, konpondu eta partekatzea
- Natura eta herri-lurak zaintzea
- Erabakiak herriarren artean hartzea
- Ez dugu naturaren eta energiaren artean aukeratu behar. Energia herritik, herriarentzat eta natura errespetatuz sor daiteke.

200m

20m

Azkua bizirik

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA: DEIALDI BERRIA



INFORMAZIO
GEHIAGO



INFORMACIÓN
EN CASTELLANO

MARTXAN DA BORTZIRIETAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Etxalarko bestak ate joka ditugu, egun batzuetan zehar urte osoko errutinaz atzendu eta familia zein lagunekin ospatzeko gogoz hartuko ditugunak. Abuztutik abuztura bitartean bizitakoak oroitu eta elkar banatzeko egunak, aunitzen kasuan.

Izan dira aldaketak azken urtean, batzuk begi-bistakoak, berteak ez horrenbertze. Bortzirietan ere bada aldaketarik: urte berriarekin batera martxan da Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea. Lehenagotik ezagunak genituen bortz herrietarako lanean zebiltzan Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Euskara Mankomunitatea eta Hiri Hondakinen Mankomunitatea, ia lau hamarkadako ibilbidean arituak. Azken urteetan, gainera, Berdintasun Zerbitzua ere abiatu da bortziritarren eskura.

Orain pauso bat harago joatea erabaki dugu bortz udalek, eta zerbitzu hauek bateratzeko urratsa egin dugu. Beharrezkoak diren baliabideak bateratzeko asmoz, elkarrekin lan egiteko aukera berriak ireki nahi ditugu epe ertain-luzean. Gaien zeharkakotasuna aintzat hartuta, zerbitzu publikoetan elkar elikatzea ezinbertzekoa da: bat ezin liteke ulertu bertzeen presentziarik gabe, elkarren arteko lankidetzaren indartzea funtsezkoa zaigu. Herri euskaldunak, parekideak, zaintzaileak eta jasangarriak nahi baditugu, bidea hori dela sinetsita gaude. Erronkaz erronka, sinergiak sortzeko lanean aritu nahiko genuke, horrek mesede bertzerik ez diolako egingen gure herrien bizitzari. Zuzenean herriarrari, zuri.

Dena den, aldaketak aldaketa, ohiko bideetatik

harremanetan segituko dugu, ohiko lankideekin, telefonoz, emailaz zein bertatik bertara, bortz herrietan arreta emanez. Hurbiltasuna, profesionaltasuna eta konfiantza eskainiz, orain arte bezala, baina izen berriarekin.

Bukatzeke, oroitu bestak denonak direla. Norbere gozamenerako ingurukoa kaltetu behar duenak hobe du etxean gelditzea. Errespetuzko besta euskaldun, parekide, komunitario eta jasangarri batzuen alde!

Besta hauetan eta urte guzian zehar, denon ardura da eraso gabeko gune askeak sortzea.

Arduraz jokatzeko eta prebentzioa gure eguneroko ohitura bihurtzeko, hona hemen gure harremanetan txertatzeko dekalogoak:

1

Erreparatu izozmendiaren oinarriari, indarkeriak ez baitira soilik kolpe fisikoak, azpian dauden eguneroko keinu eta jarrera matxistak baizik.

2

Puskatu maitasun erromantikoaren mitoak eta izan erne jeloskortasuna edo kontrola maitasunarekin nahasten dituzten sinesmenekin.

3

Zaindu ingurune digitala eta ez onartu bikotekideak sare sozialak begiratzea edota inork baimenik gabeko irudiak zabaltzea edo bidaltzea.

4

Banatu etxeko lanak eta zaintza ardurak modu orekatuan, genero-rol eta estereotipoetan oinarritutako desberdinkeria materiala ez iraunarazteko.

5

Hautsi gizonezkoen arteko isiltasun ituna eta ez izan konplize zure lagun taldean gertatzen diren jarrera matxisten aitzinean.

6

Oinarritu hezkuntza berdintasunean eta irakatsi txikitatik harreman osasuntsuak, mugak eta kontsentimendua izaten.

7

Sinetsi eta balioetsi beti eraso jasan duenaren hitza, eraso baten ondotik bere kontakizuna zalantzan jarri gabe eta bere erabakiak errespetatu.

8

Ezagutu urteko egun guzietan laguntza ematen duten baliabideak, hala nola 112a, 016a, 028a edo Bortzirietako Gizarte eta Berdintasun zerbitzuak.

9

Onartu indarkeriaren izaera egiturazkoa dela eta gogoratu ez dela gertaera isolatu bat, gure jendartearen erro sakonak dituen arazoa baizik.

10

Bihurtu prebentzioa urte osoko ohitura eta inplikatu zaitez herriko eragileekin 365 egunetan eraso gabeko gune askeak ehuntzeko.



Bortzirietako
Berdintasun Zerbitzua

Nora jo eta Baliabideak

☎ 112

Larrialdietarako telefonoa. Nafarroako larrialdi zerbitzu guziak koordinatzen ditu modu zentralizatuan.

☎ 028

LGTBIQ+ fobiagatik gorroto eta diskriminazio delituen telefono zerbitzua. Eguneko 24 orduetan eta 365 egun/urtean. Informazioa, aholkularitza juridikoko eta arreta psikosozialeko doako telefono zerbitzua. Telefono konfidentziala.

Barnahus

Barnahus zerbitzu espezializatu eta atsegina da, sexu indarkeriaren biktime izan ahal izan diren haur eta nerabeei modu koordinatuan arreta ematen diena. Gune berean, arreta psikologikoa, juridikoa, soziala eta medikoa eskaintzen da, entzuten eta laguntzen dizuten profesionalen eskutik. Senideei eta hurbilekoei ere laguntza eskaintzen zaie.

☎ 848 430296 ✉ barnahus@navarra.es

🌐 barnahus.nafarroa.eus

Kattalingune

LGTBIQ+ pertsonen arreta osoa emateko Nafarroako Gobernuak eskaintzen duen doako zerbitzua da.

☎ 678 266 865

✉ kattalingune@kattalingune.org

Mugimendu feminista

Eskualdeko mugimendu feministako taldeengana jo dezakezu urte guzian zehar, eta bestetan, txosna guneetan egoten diren txanda moreetako kideengana.

☎ 016

Emakumeen kontrako indarkeria mota guzientzako langile espezializatuen berehalako informazioa, aholkularitza juridikoko eta arreta psikosozialeko doako telefono zerbitzua. Telefono konfidentziala, eguneko 24 orduetan, 365 egun urtean eta 53 hizkuntzetan.

SIAIZ/CAIVS

16 urtetik gorako emakumeei, biktimei eta sexu-indarkerietatik bizirik atera direnei arreta espezializatua. Nafarroako Gobernuaren doako zerbitzua. Gertuko familia eta pertsonen ere eskeintzen zaie arreta, hala nola, lagunei, behar dutenei. Etengabeko ordutegia eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan.

☎ 848 463 999 🌐 www.caivs.es

BAIT/EAIV

Nafarroako Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldea.

☎ 848 46 38 50 / 621 145 751

✉ eaivcomarcaynorte@fundaciogizain.es

Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua

Baliabideen informazioa eta testigantzak jasotzeko. Konfidentzialtasuna bermatzen da.

☎ 722 69 30 78

✉ berdintasuna@bortzirietak.eus

Gure eskubideak eta aukerak ongi ezagutzeak indarra ematen digu; erabili baliabide hauek erabaki informatuak hartzeko.



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ETXEKO INSTALAZIOAK
INSTALAZIO INDUSTRIALA
EGUZKI PLAKAK AUTOKONTSUMORAKO
INSTALAZIO INTELIGENTEAK
(DOMOTIKA KNX SISTEMA)
ENERGIA KOMERZIALIZATZAILEAK

Ongi pasa bestak!

Zalain Ind. 42 | BERA
☎ 948 63 14 52 - 639 60 80 34 - 639 56 59 65



ONGI PASA BESTETANI!

AMALEUN
ARRAINDEGIA

BORTZIRIETAN,
ETXEZ-ETXEKO
BANAKETA ZERBITZUA

1. Arrainaren zerrenda eskatu 620828757an.
2. Zerrenda bidaliko dizugu eta hautatu.
3. Goizean zure eskaria prestatu....
4. eta etxera eramanen dizugu.
5. Esku dirutan edo bizum bidez ordaindu.

Tel.: 948 630 981 · 620 828 757 · Itzea, 6 · BERA



arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria

Arturo

Ongi pasa bestak!

Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136



GASNATEGIA | QUESERIA

KORTARIKO BORDA
ONGI PASA BESTAK !!!!

948580427 - 638357517
ORABIDEA AUZOA KM 18-19AN

KORTARIKO BORDA



EDALONTZI BERRERABILGARRIAK ETXALARKO BESTETAN

1€

Lortu ezazu zure edalontzia txosnan 1€ truke.

1€

Nahi duzunean itzul dezakezu eta 1€ a itzuliko zaizu.

Prozedura honi esker, jaien ingurumen-eragina txikiagoa izan dadin lagunduko duzu.

Hemiko talde ezberdinen artean, aurren hemiko bestetarako edalontzi berrerabilgarriak egiten dira. Erabil eta botatzeko edalontziek eragin negatiboa dute ingurumenean. Ea lortzen dugun Etxalarko bestak ingurumenarekiko errespetuz ospatzea!

Etxalarko Udala LEE ALTXATA




Besta ederrak pasa !

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA

Kalefakziorako Gasoila etxez etxe banatzen da

IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Telf.: 948 63 74 60
31770 Lesaka (Navarra)



OSTARGI OPTIKA

ONGI PASA BESTAK!

Bidasoa 8 BERA
948 630 753

JAIONE-GOZOTEGIA

Besta gozo eta
zoriontsuak opa
dizkizuegu

Altzate, 19 • BERA • T. 948 630 786

URKILA
HARATEGIA

Kanttonberri 4, 31780 Bera / Tel.: 948 63 04 39

BOSCH Service

Bosch Car Service

Inyección de Gasolina
Inyección Diesel
Electricidad/Electrónica
Encendido
Frenos, ABS, ESP
Mecánica de mantenimiento
Mecánica de motor
Sistemas de Refrigeración

TALLERES BIDASOA
Bidasoa, 61 • 31780 BERA (Navarra)
Tel.: 948 63 01 90
Tel./Fax: 948 63 02 99
talleresbidasoa@bosch-bcs.com
talleresbidasoabera@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!

DISFRUTATU BESTAK!

viguisa
1972tik zuen ondoan

HERNANI

50 urte

www.etiquetavoltereta.com
www.viguisa.es

[@viguisaonline](https://www.instagram.com/viguisaonline)
[ViguisaOnline](https://www.facebook.com/ViguisaOnline)



GAUZA BERA NAHI IZATEAREN
**PLAZERAZ
GOZATU**

**Jaietan,
planik onena
errespetua
da beti**

#ErrespetuaDaPlana



Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



NAVARRA ‡ NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua